

BIZIKIDETZA LANDUZ

- Maiatzaren 22 an #BizikidetzaLanduz solasaldia antolatu zuten EGK-k eta Foro Sozialak, Gipuzkoako foru aldundiaren kolaboraziarekin
- Solasaldi baten bitartez krisi garaian gazteriak sustatutako ekimenetatik ikastea zen helburua

Bilbon, maiatzaren 24ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Foro Sozialak #BizikidetzaLanduz solasaldia antolatu zuten larunbatean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kolaborazioarekin Donostiako Arrupe Aretoan goizeko 11tatik aurrera. Solasaldiaren helburua krisi garaian gazteriak sustatutako ekimenetatik ikastea zen.

Solasaldia antolatu zen gazteen iritzia eta papera elkarbizitzan zein den jakiteko, haien ekarpenak eta gogoetak bizikidetzaren inguruan egiteko. Duela sei hilabete, Foro Sozial Iraunkorrek asmo handiko prozesu bat aurkeztu zuen "bizikidetza demokratikoa eraikitzeko konpromiso soziala" lantzeko.

Ekitaldiaren helburu nagusia gazteek bizitzen ari garen krisi egoera honetan elkarbizitzarako jokatzeko dugun paperari buruz aritzea zen. Hau dela eta, erakunde eta eragile sozial desberdinen partaidetza egon zen.

Solasaldian parte hartutako elkarten artean hauek egon ziren:

- Darkum; Donostian bizi diren gazte migratzaileei laguntza eta babesa emateko elkarte da. Feminismo intersektionala oinarritzat du eta euskal gazteriaren profil anitza ezagutarazten du.
- Gurutze Gorria: Boluntarioritza sustatu egiten du gazteen artean ere. 6-30 urte bitarteko haur eta gazteentzako espazioa da guretzeko gorria, partaidetza eta hezkuntza sustatzen dituen, besteak beste.
- EGK: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Historia Osatzen proiektua burutu du Deustuko unibertsitateko Etika zentroarekin batera. Helburua, ikasketa komunikate espazioa sortzea gazteekin elkarlanean hasita.

- Gazte Agora: Eusko Ikaskuntzako gazte talde bat, EGK eta Nafarroako Gazteriaren kontseiluak sortutako mugaz-gaindiko proiektua. Helburua: Euskal Herriko gazteak saretzea eta ditugun behar eta erronkei buruz hitz egitea.

Dagoeneko Foro sozialak beste hainbat solasaldi jarri ditu martxan. Euskadiko Gazte Kontseiluaren (EGK) kasuan lan taldearen bitartez bizikidetza lantzen jarraituko du.

Solasaldia euskaraz izan zen eta gaur egun bizi dugun osasun egoera dela eta edukiera mugatua izan zuen, horretarako derrigorrezkoa zen aldez aurretik izena ematea. Foro Sozial Iraunkorraren Youtubeko kanalaren bidez jarraitu ahal izan zen.

Ikusgai esteka honetan: <https://www.youtube.com/watch?v=A9gaFLEdA94>

Informazio gehiago:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)